

ELKARRI MOKOKA: Mikel Hernandorena eta Pello Azpiroz **ERREPORTAJETXOA:** Inauteriak
ELKARRIZKETA: Gustavo Ortiz de Barrón **KUXKUXEAN:** Martxoko zorion agurrak

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria

Irudimena kolorez jantzita



Juan Cruz Martirena (Lekunberri)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak

Gure eskualdeko inauteri gehienak ospatu dituzte otsailean. Aldatzen koadrila ederra bildu ziren eta aurtengoan Allin ere berreskuratu zituzten. Herriz herriko irudiak jaso ditugu.

Konturatzeko udaberria ere iritsi zaigu eta koloreztatzeko marrazki eder hau ekarri dizuegu ale honetan.

Margotu ezazu zure gustura eta bidali iezaguzu argazkia martxoaren 20a baino lehen mailope@labrit.net helbidera eta Denonartean argialetxearen zozketan parte hartuko duzu.



Aurreko alean inauteriekkin erlazioaturiko asmakizun bat jarri genizuen. Erantzun zuzena "joaldunak" zen. Parte hartzaileen artean zozketa egin ondoren, Lekunberriko Josu Iribarrenek (8 urte) irabazi du saria. Bestalde, Eguberrietan jaso genituen elur panpinen zozketan Beteluko Ane Buldain (8 urte) izan zen saritua eta Denonartean argialetxearen liburu bat jaso berri du. Zorionak!



Antsoñea
ARID LATAKAREN ESNE GORDINEZ
EGINDAKO GAZTA ONDUA
Eduze EOMA ELABORADO ARIKIDU
TF. 948 51 34 68 . antsoñeagaztak@gmail.com . Urtegi

Atabal
okindegia
Era askotako
ogiak eta gozoak
Etxez etxe
banatuko dugu
Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa,
salteixak,
sukaldaturako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea N°7
31890 BETELU
Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com

04> Iritzia

08> Luze: Koldo Nuñez



10 > Plazaola Partzuergo Turistikoa

Gustavo Ortiz de Barrón, Plazaola Partzuergo Turistikoko gerente izendatu zuten urrian. Geroztik, orain arte Maitena Ezkutarik betetzen zuten postuan dago eta dagoeneko hurrengo urteetan aurrera eramango duten estrategian lanean dabil.

16> Erreportaje Nagusia: Kirol Mankomunitatea



21 > Ikasleak ere Mailoperen alde

Ibarberri ikastetxeko ikasleek, otsailaren 22an, Lekunberrin egin zen Mailope lasterka txikian parte hartu zuten. Abenduan, Baraibartik Atallura egindako lasterketan, txikienen aldetik izandako parte hartze eskasa dela eta neurrira egindako lasterketa izan zen.

25> Herritik mundura: Perura egindako bidaia baten kontakizuna



28 > Beteluko Ostata

Amaia Aizkorbe, Beteluko Ostatuko arduraduna abenduaz geroztik. Sei langile dabilta egun ostatuan lanean. Lehenengo hilabete hauetako balorazioa egin dugu berarekin.

30> Kuxkuxean: Otsaileko zorion agurrak

31> Kontu txikiak

Mailope doan banatzen da honako herrietan:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiuro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Alfredo Dufur, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

ARGAZKIAK: Labrit, Ainhoa Lertxundi, Mikel Huarte, Monika Gastesi, Laida Zabaleta, Sugoi Etxarri eta Juan Antonio Garaikoetxea.

PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

MAKETAZIOA: Mikel Azpilikueta.

TIRADA: 1.600 ale.

Araizko Udal Taldearen agurra

Araizko Udalean talde berria hasi gara lanean urtarilaren hasieran.

Udal taldearen helburuen artean finkatu ditugu gardentasuna eta herritarrekin komunikazioa, besteak beste. Udala guztio-na dela sinesten dugu eta guztioi irekitzen dizkie ateak. Zentzu honetan, udal batzarrak, hileko azken astearteko arratsaldeko zazpitan egingo dira udaletxean. Guztiok zaudete gonbidatuta bertan parte hartzera.

Bestalde, herritar ororen kezka, asmoak, ideiak, kexak eta proposamenak jasotzeko gogoz gaude.

Herritarren eta udalaren arteko komunikazioa indartzeko asmoarekin gatz. Hori, zuzenean izan daiteke nahi bada, aurrez aurrekoa ala gaur egun teknologiek eskaintzen duten bide desberdinen bitartez, hala nola, e-posta, facebook, whatsapp-a... Izan ere, horretarako facebook-en Araizko profila sortu dugu, herritarrokin komunikazioa errazteko.

Facebook-eko taldearen izena "Araizko udala" da eta helbidea: "https://www.facebook.com/groups/952109508199867/ "

Orain, animatzen zaituztegu talde honen kideak egitera. Horrela bertan zuekin konpartitu ahal izango ditugu berriak, galderak erantzun, proiektuak eta ideiak proposatu, kontu kontari aritu, etab.

Halaber, informazio ofiziala, hartutako erabakiak, deialdiak, udalean egindako lanak, etab. orain arte bezala, udaletxeko iragarki taulan, herriko tabernan eta herrietako iragarki tauletan jarriko dira. Norbaitek e-postaz informazioa jaso nahi izanez gero, udaletxean helbidea utzi eta aldiro bidaliko zaizue.

Aurrekoen lanari jarraipena eman nahi diogu, gainera. Hortaz, orain arte martxan egon diren batzordeak mantenduko dira eta beharra ikusiz gero, berriak sortu. Dagoeneko, orain arte egon diren batzorde bakoitzeko arduradunak finkatu ditugu. Edozein herritarrek har dezake parte batzordeotan eta animatzen zaituztegu horrela egitera.

Parte hartzea handia bada, egitasmo gehiago aurrera eramateko gai izango gara, udalerrri txikia izanda ere, udalerrri bizia nahi dugu. Gure komunitatea sendotzeko gogo handiarekin gaude.

Gora Araitz!!!

Araizko EH Bildu.



asegurogintza
aseguru
aholkulariak
**Zure ondarea
eta segurtasuna
babesteko modu
bakarra behar bezela
aseguratua egotea da**

Telefonoa: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

**CONSTRUCCIONES
GAÑARBE ERAIKUNTZAK S.L.**



**Etxebizitzaren eraikuntza
eta erreabilitazioa**

948 504 351 - 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com
Oztegin kalea 2, Lekunberri

Eskerrak emanez

Joan den otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, herriko hainbat talde desberdinekin eta joan zirenekin batera, koplak eta bertso batzuekin animatu genuen Lekunberriko herria ikas-bidaiarako dirua lortuz. Eskerrak eman nahi dizkizuegu lagundu zeniguten guztiei, herritarrei eta abestu ostean merendutxo goxoa prestatu zigutenei.

Eskerrik asko denoi!!

Ibarberri Eskolako DBHko ikasleak.

Denak ez dira berri txarrak

Negozio gizon batek atzerrira joan behar zuen egun batzuetarako. Orduan, bere giltzari fidel eta estimatuari deitu eta honela azaldu zion egoera:

-Begira, Maritxu, egun batzuetan atzerrian egon behar dinat. Ardura hadi hemengo guztia ongi egon dadin, eta arazoren bat baldin bada, deitu iezadan segituan.

-Bai jauna, zu ez kezkatu!

Egun batzuk igarotakoan, eta inolako berririk ez zuenez izan, negozio gizonak, badaezpada ere, bere giltzariari dei egin zion:

-Kaixo, Maritxu. Nola daude gauzak hor?

-Oso gaizki!

-Zergatik? Zer gertatu da?

-Pala-kirtena hautsi egin da.

Baina, jainkoaren! Ia-ia bihotzekoa eman zidanaren hiregatik! Dena oso gaizki dagoela esan didan, eta arazo bakarra dun hautsi egin dela pala-kirtena!

Baina, negozio gizonak, ahaldurak jota, pentsatu zuen bere enplegatua gaizki senti litekeela, eta, orduan, doinu ulerkorrago batean galdetu zion:

-Nola hautsi da?

-Txakurra lurperatuz.

-Zeeeeer! Semea bezala maite dudun txakurra? Zer gertatu da?

-Igerilekura erori zen.

-Baina, aizan, Terranova arrazakoa zunan, igerian ongi egiten duen txakurra! Nola ito egin ahal izan da?

-Ez zen ito egin, jauna, hutsik zegoen igerilekura erori egin zen!

-Nola hutsik? Joan den astean garbitu eta urez betearazi egin ninan-eta, udarako!

-Bai, baina ura suhiltzailek erabili zuten, sutea itzaltzeko.

-Zer sute?

-Etxea erre zuena.

-Zeeeeer! Zer arraio gertatu zen?

-Zerorren ama andrearen hil-kaperan gertatu zen, errezen ondoan zegoen kandela bat erori eta oihalei su eman zien.

-Ama hilda dago? Baina, nola? Orain dela egun gutxi bere 70. urtebetetzea ospatu geninan eta... erregina bat bezala zegoen!!!

-Bai, baina herenegun gauean amak ezin zuen lo egin eta zure logelara joan zen, emazteari pilula bat eskatzera. Emaztea zure lagunik hobereenarekin topatu zuen ohatzean eta bihotzekoak emanda hil zen.

-Ai ene! Beraz, laburbilduz, emazteak traizio egiten zidanaren nire lagunik hobereenarekin... Lau egunetz etxetik kanpo egon eta nire bizitza infernu hutsa bihurtu dun! Egiazki, ez al dun deus ere positiborik?

-Bai, Erramun jauna! Denak ez dira berri txarrak izan. Gogoratzen al duzu joan den astean egin zizutela proba bat prostata minbiziari buruz?

-Bai...!

-Bueno, ba, hau behintzat positiboa atera zaizu!

Xanti Begiristain Madotz (Itzulpena).

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi
mailope@labrit.net-era
hilaren 20a baino lehen.

Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

BETELU
PNEUMATIKOAK

TAILER MUGIKORRA

NEUMATIKO ALDAKETA
ZULATZEEN KONPONKETA

Vicente Iriarte
T. 646 474 166
www.neumaticosbetelu.es

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

Bertso berriak. Mailoperi jarriak

Juan Cruz Martirena (Lekunberri)



*Udaberria dugu
gogoz ate joka
serio-serio doa
ez da berriketa
negua baino hobe bada
ez digu inporta
ondoren eingo du
nola joan den konta*

*Baztarreta begira
ai! Zenbat lorea
politak baitirade
haien kolorea
ingurua jartzen da
oso dotorea
horrela aldatzen da
gure umorea.*

Mikel Huarterentzako gaia:

Zein duzu gustukoena, pagoa ala haritza

Oinak:

Bagina, berdina, ezina eta atsegina



Doinua: Pasaiko herritik

- 6 -



PARTE HARTU BIGARREN ESKUKO MERKATUAN

Hirugarren urtez bigarren eskuko merkatua izanen da maiatzaren 28 eta 29an Lekunberriko Frontoian. Antolatzaileek dei egin diete herritarrei erabiltzen ez diren arropak, liburuak eta bestelako materiala izanez gero, postua jarri eta parte hartu dezaten. Animatu eta parte hartu! Harrematarako: 626 717 360.



BIZIKLETA, ELEKTRIKO BIHURTZEKO TAILERRA


Zuk zeuk etxean duzun bizikleta, bizikleta elektriko bihurtzen ikasteko tailerra eskainiko dute Lekunberriko udal aretoan martxoaren 11n, 19:00etan.



SUKALDARITZA TAILER ARRAKASTATSUA

Larraun eta Lekunberriko DBH-1 eta DBH-4 bitarteko 19 gaztek parte hartu zuten joan den hilean Uitziko elkartean egin zuten sukaldaritza tailerrean. Barbakoa pizza, patata minak eta alioli erara, torradak labean eta krema pas-teleroarekin, oreo tarta, udare egosia txokolate beroarekin eta esnegainarekin eta beste hainbat plater prestatu zituzten.

Ustel usaina dago



Mikel Hernandorena

Kaixo Pello!!! Zer moduz? Gaurkoan azken urteotan pil-pilean dagoen gai bati helduko diot, ustelkeriari hain zuzen ere. Izan ere, Europako beste kultura eta herrialdeetan ustelkeria biziki zigortzen den bitartean, badirudi Espainian ustelkeria politikoan sariren bat dagoela, ea trama horretan hobereena nor izango den jakiteko.

Egia esan, asko harritzen ez gaituen gai polemikoa da ustelkeriarena. Egunero telebista piztu eta komunikabideetan honako albisteak entzuten ditugu: Urdangarin eta bere emaztearen diru korranteak Palman; Valen-

“Gizarteak erasotuak izatearen beldurrez hezi gaitu”

tziako PPko hainbat karguren atxiloketak, hain famatua den Rita Barbera barne; Barcnas eta Rato; Kataluniako Pujol familia... Hainbat adibide jarri ditut, baina Espainian dauden ustelkeria kasuak udaberrian hostoak ateratzen diren bezala ateratzen direla dirudi. Gero, ez da harritzekoa Katalunian eta Euskal Herrian dagoen independentzia nahia nabarmena izatea. Zertarako zergak ordaindu diru hori beraien luxuetan xahutzen duten politikariei? Esaten da independentzia nahia identitate arrazoi eta arrazoi kulturalen ondorio dela, eta hala da neurri handi batean, baina nik uste, Kataluniaren kasuan, esaterako, kokoteraino daudela zergak ordaintzeaz ondoren diru hori auskalo zertan gastatzen duen gobernu bati.

Lehenengo batean Nafarroako Unibertsitate Publikoko jantokian bazkaltzen nengoela, kafetegira zerbait eskatzera joan nintzen, eta nor topatu eta Yolanda Barcina. Lagun bat eta ni albotik pasa eta Barcina batekin hizketan zegoen. Honako esan zion: “Es que en España la transparencia...” Esaten den bezala, “consejos vendo pero para mí no los tengo”. Hau da, oso ohikoa da hemen ustelkerian murgilduta egon diren politikariek garbitasunari buruzko azalpenak ematea. Eta ez hori bakarrik, klasera gindoazen eta Barcina anderea auto pribatu batean sartzen zela ikusi genuen. Lagunak esan zidan: “Amorrua ematen du auto pribatu bat izateak, baina are amorragarriagoa da auto hori guztiona den diru publikoarekin ordaindu izana”. Arrazoi guztia zuen, dudarik gabe.



Pello Azpiroz

Iepa Mikel! Zer moduz zabilta? Bai, ustelkeria ohiko bihurtu den gauza bat da. Zeinek esango zigun nafarro gertatu zaizkigun kasu lotsagarri guzti horiek gertatuko zitzaizkigula? Nafarroan ustelkeriari lotuta gertatu dena onartezina da. Nafar guztiona zen (CAN) aurrezki kutxaren desagerpena, dieten auzia, Los Arcoseko zirkuituarekin gertatu dena... Urru-

ti r a

ez gara joan behar ustelkeria kontuak aurkitzeko, hemen

“Ustelkeriari aurre egiteko neurri eraginkorragoak behar ditugu”



iada badugu zerrenda luzea. Eta gauza guzti hauek gertatu eta hala ere betikoek irabazten dituzte hauteskundeak. Nik hau ikusteak sutu egiten nau eta aldi berean inpotentzia sentitzen dut. Ustelkeriari aurre egiteko neurri eraginkorragoak behar ditugu, ezin dira errepikarazi gehiago horrelako arazo larriak. Gardentasun osoa eskatu beharko genieke kargu publikodun guztiei, herritarrok gure diruarekin zer egiten den jakin dezagun.

Askok hitz egiten dugu komunikabideetan entzuten diren kasu entzutetsuen inguruan, baina uste dut hitz egin beharko genuela ere beste maila batzuetan dauden ustelkeriez. Ustelkeria ere kontsideratzen dut egindako lana diru beltzean kobratzea. Zeinek ez du ezagutzen inguruan pertsonaren bat lan orduetatik kanpo

“lantxoak” egiten dituen beltzean diru extra bat ateratzeko? Eta bitartean, milaka pertsona langabezian edo hilabete bukaerara iritsi ezin diren autonomo pila dauzkagu. Gizarte honetan dugun diru gosea izugarria da eta kodigo etiko guztien gainetik dago. Jarri gure (gazteen) lekuan. Zenbat gazte gaude langabezian? Uste dut solidarioagoak izan behar garela elkarrekiko. Gure zilborraz haratago begiratzen jakin behar dugu. Eta nire ustetan, solidarioa izatea gutxiagorekin biziten jakitea eta konformatzea ere bada.



Koldo Nuñez-Betelu

LUZE

Bizi espiritualaren beharra

Duela urte gutxi arte, ia guraso guztiok haurrak bataiatzen genituen jaio bezain laster. Eta gure artean erlijio katolikoa, erlijio bakarra, nonbait, izanda, erlijio horretan bataiatzen genituen gu bataiatu gintuzten bezala. Horretarako Eliza Katolikoak bi bide erabiltzen zituen, batetik, beldurra. Izan ere, bataiatu gabeko haurrak ezin ziren hiltzean zerura iritsi, alegia, gurasoen inkontzientziagatik, haur horiek betirako zerutik kanpo geratuko lirateke. Duela urte gutxi, elizak aldatu zuen hori, denbora luzez erabili ondoren. Bestetik, Espainiak hitzarmena izan du sinatuta Vatikanoarekin eta, ondorioz, bataiatzearen bete behar bat zen. Gainera, Gizarteak berak ere presioa egiten zuen, ohitura sozial bat baitzen. Honi gehitu behar zaio, familia barruko tradizioa eta leialtasuna. Baina, azken urteotan egoera aldatu izan da eta haur asko ez dira inongo erlijiotan bataiatzen. Guraso askok ez dugu sinesten Eliza Katoliko honetan eta, ondorioz, ez ditugu haurrak bataiatzen. Eta, gainera, ez genuen beste erlijiorik ezagutzen edo, ezagutzekotan, debekatuta zeuden, nonbait.

Baina erlijio katolikoa edo beste edozein erlijio, beharrezkoa dugu gizakiok bizitzeko? Beharrezkoa badugu, gure haurrei ez diegu behar duten zerbitzu ematen. Ez bada beharrezko, ongi, aurra.

Nire aitona, Donostiako Altzakoa zen eta bertako apaizaren lagun handia. Hala ere, ez zuen inoiz oina elizan jartzen. Apaizarekin egoten omen zen maiz eta lagunak omen ziren. Maiz erlijioari buruz hitz egiten omen zuten, oso giro onean. Aitonak ez zuen erlijio katolikoan sinesten, baina bai, espiritualitatearen beharrean. Izan ere, gizarte eta kultura guztietan, sinesmen eta erlijioak egon dira beti, historiaren tarte txiki batzuetan izan ezik. Duela milaka urte, Euskal Herriko kobetan



“Gizakiaren benetako beharra espiritualitatea lantzea da”

gizakiak gordetzen zirenean, bazegoen norbait espiritualitatea lantzeko. Haien margoak, kobazuloaren hormetan geratu dira. Hortaz, milaka urtetan zehar, gizakiak behar bat bezala sentitu du baduela bere baitan bizi espirituala garatzeko beharra. Hortik, sortu izan ziren erlijioak, behar horretatik. Erlijioak aldatzen joan dira mendetan zehar, batzuk agertu eta beste batzuk, buka-

tu. Honek ere, erakusten du erlijioak espiritualitatearen beharra asetzeko modu ona izan daitezkeela baina ez perfektua. Eta honek ere frogatzen du, gizakiaren benetako beharra ez dela erlijioa, espiritualitatea lantzea, baizik. Erlijioak balio die batzuei tresna bezala barruko behar hori asetzeko, baina ez da zertan horrela izan guztiontzat.

Egipton eta Grezian pentsalari eta filosofoak garatu zirenetik, behar honen beharraz aritu dira etengabe, gehienak. Gizakiok, espiritualitatea ahaztu egiten badugu, eta inolako praktika espiritualik edo erlijiorik gabe bizi bagara, gure behar bat ez gara asetzen ari. Hortaz, hutsune bat ari gara sortzen gure baitan. Korrante materialistak saiatu izan dira plano mentaletik hutsune hau betetzen baina ez dute inondik inora lortu. Egun, Zientzia eta Teknologiarenean espejismo edo begitazioak, ustez, askori betetzen omen die hutsune hau. Zientzia eta Teknologia jainkoak balira bezala ikusten ditu askok, ez tresna soilak bezala, eta bihurtu dituzte haien erlijioak. Baina honek ez du benetako beharra asetzen. Areago itsutu egiten gaitu eta gure barruko hutsunea sakonago egin.

Dagoen bide bakarra, gure behar espiritual lantzeko, espiritualitatean bertan zentratzea da, inongo ordezkorik gabe. Eta horretarako bidea ez da bakarra, bide asko daude. Badaude hainbat erlijio munduan eta, horrela nahi izanez gero, hauek bat aukera dezakegu, edo gure barne bidea egin beste praktika batzuen bitartez. Beti ere, kontuan izanda helburua ez dela erlijioa bera, gure espiritualitatearen beharra asetzea eta garatzea baino. Bakoitzak erabakiko du nola, erlijio baten bitartez ala erlijiotik kanpo, baina, galdua ez sentitzeko, landu egin beharko du bere baita espiritual. Bakoitzaren ongizate psikologikoak horrela eskatzen du.

Erosi zeurea
12 euroren
truke!

ENE KANTAK

Oneka Marrazoaren
ikusbizuna orain DVD-an.

Mailope aldizkariaren aldeko
proiektua.

Informazio gehiago: www.enekantak.com



“Eskaintza dibertsifikatzea eta eragile gehiago erakartzea da asmoda”

- 10 -



Gustavo Ortiz de Barrón dugu Plazaola Partzuergoko gerente berria. Arabarra da jaiotzez, nahiz eta azken sei urteotan Nafarroan bizi den. Urriaz geroztik Maitena Ezkutarik betetzen zuen postuan dago eta ideia berritzaileekin etorri da.

Urriaz geroztik Plazaola Partzuergo Turistikoko gerentea zara. Orain arte zertan ibili izan zara lanean?

Ni enpresa pribatutik nator, turismoari lotutako aholkularitza bulego batean eman ditut hamabost urte eta, batez ere, planifikazio turistikoek eta produkzio turistikoek arduratzen nintzen.

Beraz, sektore hau ezaguna duzu...

Bai, bai. Niretzat ezaguna da eta mota honetako partzuergo eta entitateekin aurretik harremanak izan ditut.

Eta gure eskualdea, lehenagotik ezagutzen al zenuen?

Bai. Familia daukat Ultzama aldean eta orain dela urte asko Leitza aldeko barnetegi batean ibili nintzen euskara ikasten. Gainera, Plazaola turismoaren arloan erreferente bat da. Bere garaian, sortu zenean, Estatu

mailan ez zegoen halako entitaterik ia. Ez zen lehenengoa izan, baina bai lehenetarikoa eta literatura turistikoan erreferente garrantzitsu bat da, dudarik gabe. Horregatik Plazaola Bide Berdea, Aralar eta inguruko tokirik ezagunenak behintzat ezagutzen nituen.

Nolatan aurkeztu zinen gerente lanetan aritzeko lehiaketara?

Aholkularitza enpresan nahiko egoera zailean nengoen jada, irailean lanik gabe gelditu nintzen eta urrian lehiaketa publiko hau ikusi nuenean niretzako aukera ona izan zitekeela pentsatu nuen. Azken finean, sektorean lan egiten urte asko daramatzat, hala ere hemengo berri handirik ez izateak beldur pixka bat ere ematen zidan. Baina proba egin eta hemen nago eta espero dut onerako izatea.

Eta zer moduz moldatu zara lehenengo hilabete hauetan? Zeintzuk izan dira lehen inpresioak?

Egia esan, hasiera gogor samarra izan da. Partzuergoan bertan aldaketa asko egon ziren ni sartu nintzen momentuan, lehendakari aldaketa izan zen, lankide bat ere bajan egon da denbora luzean, eta nahiko bakarrik ibili naiz. Maitenarekin traspasoa egiteko ia ez dugu momenturik izan, baina astiro-astiro ari naiz dinamika hartzen eta zentzu horretan eskertzekoa da batez ere bazkideek izandako aldeko jarrera. Beste aldetik ere Tursimo Bulegoko Anaren laguntza eskertu behar dut, bere neurrian, laguntza handia eman baitit.

Dagoeneko bazkide batzuk ezagutu dituzu orduan...

Bai, bai. Alkateekin hainbat bilera izan ditut, baina bazkide pribatuekin ere bilera batzuk egin ditut dagoeneko. Batez ere neure burua aurkezteko eta niri sortu zaizkidan ideiak beraiekin konpartitzeaz gain, euren aldetik dagoen produktzioa eta eskaintza ezagutzeko. Nire asmoa denon artean estrategia bat sortu eta datozen urteetarako lan-ildoak erabakitzea da. Eta egia esan bazkide publiko nahiz pribatuek oso ongi hartu naute eta eskertzekoa da.

Zenbat langile zabiltzate partzuergoan lanean?

Berez, hiru langile gaude: Asun, administraria; Ana, turismo bulegoko langilea; eta ni.

Momentu honetan zein proiektu dituzue esku artean?



EuroVelo proiektuak Europatik datorren Europako bide berdeen sarera lotuko du Plazaola. Arg: Garaikoetxea

“Eskertzekoa da bazkideek egindako harrera”

Egia esan fronte asko daude irekita. Ni hona iritsi eta hurrengo egunean, go-goan dut EuroVelo proiektuari buruzko txostena eman zidatela. Oso proiektu interesgarria da, Nafarroako Gobernuak proiektu estrategiko bezala onartu duena. Helburua Baiona, Donostia eta Iruñea lotzea da eta gurean izugarriko eragina izango luke. Europaren onarpenaren zain gaude orain, espero dugu ekainean ebazpena kaleratzea eta onartuz gero aurten bertan hasiko gara proiektu horren gaineko lanekin.

Eta EuroVelo proiektuaren baitan zein berrikuntza izango dira Plazaola Bide Berdean?

Alde batetik, Bidasoako Bide Berdearekin lotura bultzatuko da. Gainera, Kaxarnatik Irurtzun alderako natur bidea egokitzeko asmoa dago, bi ahizpe tartean. Eta, azkenik, Sarasarluñea tarteko lur-desjabetze lana hasiteko asmoa dugu Eurovelo/Naturbidea proiektuarekin. Ekipamenduei dago-kenez, Leitza eta Latasako geltokietan obretan sartzeko diru-partida dago. Leitzakoan, hain zuzen, ekipamendu lanak egingo dira, eta Latasan, berritze eta ekipamendu lanak (azken kasuan Imotzeko udalak hartu du proiektuaren

ardura, Ederbidea proiektu honetan bazkide modua sartu baita). Horrela, Leitza, Lekunberri eta Latasa gune nagusiak izango dira bisitariei harrera egin eta zerbitzua emateko. Eurovel/Ederbideaz gain, Irurtzundik Sarasarainoko tartea irekitzeko proiektua ere dagoeneko Madrilan dago. Espero dugu horrekin ere aurten hasi ahal izatea, nik uste hori bi urteko proiektua izango dela.

Beraz, zereginik izango duzue...

Bai, niretzako lan-ildo zoragarria da hori. Baina, nahiz eta bide berdea izan Partzuergoko produkturik erreferenteena, jakin banekien bestelako baliabideak ere bazirela. Nire ustez, hemengo eskaintza askoz handiagoa izan daiteke eta horretan ere badugu zertan lan egin... Bestalde, mantenimenduak buruhauste dexente sortzen dizkigu.

Zergatik?

Aurten udal guztien artean aztertu nahi genuke zehazki zeintzuk diren ditugun mantenimendu beharrak eta ea gobernuarekin harremanetan jarriz, diru laguntzak lortzen ditugun.

Orain arte udal bakoitzak bere eremuari zegokion mantenimendu lanak egiten zituen, ezta?

Oro har bai. Orain arte udalek hartu dute horren ardura, batez ere oinarrizko mantenimenduak, garbiketara seinalazioa etab. Baina ez-ohiko gertaerak daudenean oso zaila da. Adibidez, lur jauziak oso arruntak izaten dira, ditugun aldapekin eta daukagun klimarekin. Horregatik denon artean

elkARRIZketa:

*“Bide berdeko manteni-
mendua nola kudeatu
aztertu beharra daukagu”*

txosten bat landu nahi genuke gober-
nura jotzeko eta ea elkarlanean lortzen
dugun haiek ere ardura hartzea. Zaila da
ez-ohiko gertaerak pasatzen direnean
partzuergoak berak edo udalek kon-
ponketa horiek bere gain hartzea.

Mugiroko zatian zer moduz dago?

Hor ere arazoak izan ditugu mantent-
zeko. Hortik Irurtzunera ura eramaten
duen hoditeria bat pasatzen da eta bere
garaian obra bat egin zen jakinda ez zela
modurik egokiena, ez baitzegoen beste
irtenbiderik, baina arazoak ematen ditu
eta berrikusi egin behar da. Orain gu-
txi Madrilen izan ginen Fitur azokan, eta
bertako teknikari eta politikariei azaldu
genien zer-nolako egoeran zegoen Mu-
giroko tartea eta balorazio bat egin dai-
tekeela esan zituzten.

Nahiko polemikoak izan ziren Mugiroko zatian jarritako eskailerak...

Bai, nik ez dut ezagutu nola izan zen pro-
zesua, baina dudarik gabe horrek ez du
bat egiten bide berdearen filosofiarekin.
Egina dago eta egia da aukera ematen
diola ibiltariari Mugiro ezagutzeko eta
jendea bertara hurbiltzeko eta hori ga-
rrantzitsua da. Baina uste dut aurretik



Gustavoren ustez, Aralar estrategikoa da produktu turistiko bat sortzeko. Arg: J.A. Garaikoetxea.

zegoen proiektua berreskuratu behar
dugula.

Orduan etorkizunean egokitzeko as- moa duzue?

Bai, bai. Beste modu bat aurkitu behar
dugu bi aldeak lotzeko. Bide berde-
ren inguruan fronte ezberdinak ditugu,
baina bazkideei transmititu diegan be-
zala, uste dut horrez gain hemen beste
baliabide oso garrantzitsuak ere badi-
tugula bestelako produkzio turistikoak
sortzeko.

Hala ere, turistikoki gehienbat bide berdeari esker lortu du duen erreferen- tzialtasuna...

Bai, bai. Orain arte gure eskaintzaren
ildo nagusia batez ere natur bidea izan
da eta horrek merkatu turistikoan jarri
gaitu eta gainera ezagun egin da. Fitu-
rren oso adierazgarria iruditu zitzaidan
jende askok ezagutzen zuela ikustea.

Eta bestelako ze baliabide ustiatu dai- teztekeela uste duzu?

Nik dagoeneko zirriborro moduan pro-
posamen bat prestatu dut, datozen
hilabeteetan bazkide publiko eta pribatuekin
batera aztertu eta estrategia txiki
bat sortzeko. Produkzioa garrantzitsua
da, hori delako saltzen duzuna eta kan-
pora begira sustatu beharkekoa, baina
barrura begira hainbat erronka daude-
la uste dut; partzuergoan bertan, gure
funtzionatzeko dinamika, bazkideekin
daukagun harremana etab. Nire ustez,
horretan ere asko sakondu dezakegu,
hobetzeko.

Eta zertan oinarrituko da estrategia hori? Hori guztia bazkideekin landu eta sortu

beharkekoa da. Alde batetik, gure es-
kaintza turistikoa dibertsifikatzea, bide
berdea sustatzen jarraitu baina beste-
lako produkzio turistikoak ere sortuz.
Bestalde, marketinaren arloan nabari-
tu dut gabezia batzuk ere badirela eta
orain badira tresna berriak eta beste
aukera batzuk marketina, promozioa,
komertzializazioa eta merkaturatze lana
bultzatzeko. Horretan ere bestelako es-
trategia bat landu nahiko nuke. Eta azke-
nik partzuergoan bertan, gauza batzuk
hobetu eta indartu behar ditugu. Ho-
riek dira batez ere helburu nagusienak:
produkzio turistikoa, marketina, promo-
zioa, merkaturatze lana, partzuergoko
kudeaketa eta bazkideekin harremana.

Eta bestelako ze produkzio turistiko landuko zenituzte?

Nik ikusten dut natura eta paisaia oso
garrantzitsuak direla eta Aralar strate-
gikoa dela iruditzen zait. Gune natural
ederra da, paisaia izugarriak eskain-
tzen dituena eta usadioarekin, megali-
tismoarekin eta hainbat arloekin lotu
dezakeguna. Argudio asko daudela uste
dut hor produkzio turistiko berezi bat
sortzeko. Egunerokoan ikusten dugu
jende asko etortzen dela Aralarrera kiro-
la egitera adibidez. Eta kirolarekin lotuta
aukera ona izan daiteke produktu bat
sortzeko. Gainera horrek aukera ema-
ten digu turismoa lantzen duten ingu-
ruko ibar eta entitateekin harremanetan
egoteko. Sinergiak lortu behar ditugu
Goierrikoekin, Sakana aldekoekin... Ara-
larrek berak ere badu bere posiziona-
mendua, oso ezaguna da eta jende asko
etortzen da. Dena den ez dut dena Ara-
larren finkatu nahi, badira ere beste



hainbat leku. Eta bestetik nortasuna eta euskararekin lotuta ere zerbait sortu daitezkeela uste dut.

Adibidez?

Hizkuntza bat baliabide turistiko bat izan daiteke, euskara ikasteko barnetegiak egiten dira adibidez. Baina turismo linguistikotik haratago, badira esperientzia batzuk. Ez da soilik turismo linguistikoa, ezagutzera eman dezakegu nola lotzen den hizkuntza, lurraekin, herri-tarrekin... Hemen bertsozari adibide nahiko argia dela iruditzen zait, toponimia, abestiak... Gauza asko daude lotuta hizkuntza batekin. Pentsatu behar duguna da hori nola bideratu eskaintza bat sortzeko. Dena den finkatu beharko genuke zer-nolako merkatura jotzen dugun, aukera asko egon daitezkeelako gauza ezberdinak sortzeko.

Eta horretan zein da bazkideek jokatzen duten papera?

Gure bazkideak funtsezkoak dira, baliabideez gain zerbitzuak behar direlako eta bazkideekiko harremana eta parte hartzea ezinbestekoa da. Bestalde, txangolariak askotan ez ditugu begi onez ikusten, baina garrantzitsua da beraiei zerbitzu onak eskaintzea, pozik geldituz gero eta euren egonaldia ona bada balitekeelako aurrerago turista moduan bueltatzea.

Diru laguntzekin zer moduz zabiltzate?

Gobernuko ordezkariak aurreratu digute hurrengo urteari begira aurrekontuak pixka bat handituko direla eta diru laguntzen bidez gehiago jasotzeko aukera izanen dela. Gu bezalako entitateen zama izaten da hori, diru-laguntzak direlako gure diru iturri nagusiak. Gainera, turismoa nahiko transbertsala da berez eta kultura, kirola eta bestelako departamentuetan ere pentsatu beharko genuke. Hala ere, ez dugu diru publikoa soilik kontuan hartu behar, entitate pribatuen diru laguntzak ere aprobetxatu behar ditugu eta entitate pribatuekiko harreman hori ere landu egin behar dugu.

Bazkideek gora egiten jarraitzen dute?

Helburua bazkideetza handitzea da. Bazkideak gure funtzionamenduan diru-iturri bat badira ere, askoz garrantzitsuagoak dira gure eskaintza turistikoa osatzeko bazkideek eskaini ditzaketen zerbitzuak eta ekarpenak. Askotan turismoa ostatuekin eta landetxeekin lotzen da, baina badira jatetxeak, aisialdirako zerbitzuak... Eta hemen nahiko eskain-

tza anitza eta ugaria daukagu. Bazkide ez izan arren, zerbitzu bat eskaintzen duten horiekin ere kontatu beharra daukagu. Funtsezkoa da baliabideak eta zerbitzuak uztartzea eta partzuergoak bazkideei euren eskaintza erraztu egin behar die, horretarako dago partzuergoa, horregatik da horren garrantzitsua denok parte hartzea estrategia hori sortzen. Eta bidean bazkide gehiago erakartzen saiatuko gara, pribatuak zein publikoak

“Plazaola erreferente turistiko bilakatu da Estatu mailan”

Araitz eta Beteluko Udalak bazkideak ez diren arren, bazkide pribatuak badi-tuzue bertan...

Bai. Badirudi bazkide pribatuek beste ikuspegi zabalago bat dutela. Bazkideak turistikoki funtsezkoak dira, baita udalak ere, azken finean udalak dituelako bere lurraldearen gaineko eskumenak eta izugarrizko laguntza eman dezake eskaintza turistikoa hobea izan dadin. Udal batek bere herria garbi mantentzen duenean edo bide bat konpontzen duenean turismoaren alde laguntzen du. Gure asmoa eskaintza dibertsifikatzea da eta horrek eskatzen du lurraldea finkatzea eta eragile gehiago erakartzea. Eta eskaintzak berezia eta berezitua izan behar du.

Fitur azokan bi ekimen aurkeztu dituzue.

Bai, maratonia eta Europako XIII. Orien-

tazio Txapelketa. Abuztuaren azken astean, Orientazio txapelketa egingo da Aralarren. Club Atletico de Navarrak eta Gipuzkoako Orientazio Taldearen artean Aralarren egiteko aukera aurkeztu zuten Europako deialdian eta guregana jotzen. 24 orduko proba bat izango da, baina aurreko egunetan entrenamenduak egiten ibiliko direnez, partehartzaile gehienak astebete emango dute hemen. Gainera asko euren familia eta lagunekin etorriko dira. Horregatik, beraiei eskaintzeko programa turistiko bat prestatu behar dugu. Kalkuluen arabera, 500-1.000 pertsona inguru etorriko dira, gehienak atzerritarrak eta jatetxeak, ostatuak eta bestelako zerbitzuak beharko dituzte. Bestalde, mapak prestatu behar dira probetarako eta aukera ona izan daiteke mapa turistiko berriak sortzeko.

Eta maratonia irailaren 11n izanen da.

Bai. Maratonia “Maratón Vias Verdes” produktua eskaintzen duen Kataluniako enpresa batekin antolatuta dugu. Asmoa maratoni erdia mantentzea da. Maratonia arrakastatsua izanez gero, hori ere mantendu egingo dugu. Dagoeneko jendea hasia da izen ematen eta ostatuak hartzen. Halako kirol probei denon artean kutsu turistikoa ematen saiatu behar dugu eta bazkideek eragin behar dute horretan eskaintza bereziak eginez etab.

Beraz, urte interesgarria duzu aurrean.

Bai bai eta ilusio handiarekin nago. Askok eskertzen dut udal ordezkariak, bazkideak eta oro har jendeak izandako jarraera eta ea martxoan estrategia hori lantzen hasten garen. Ez da bide erraza izango baina gogotsu.



Irailaren 11n maratonia egingen dute Plazaola bide berdean. Arg: J.A. Garaikoetxea

Lan ezegonkortasunaren kontra

Otsailaren 18an atera ziren Bilbotik *Correscales* martxan parte hartu zuten lehen pertsonak eta handik lau egunetara iritsi zen Bartzelonara. Hilaren 19ko arratsaldean pasa zen gure eskualdeko zenbait herritatik. Ez zuen jarraipen handirik izan, baina hala ere zenbait herritar korrika egitera atera ziren. Movistar enpresako langileek antolatutako 800 kilometroko martxarekin ezegonkortasun laborala salatu nahi izan dute.



Martxoan, emakumeei zuzendutako kultur egitaraua

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izanen da martxoaren 8an eta urtero bezala Lekunberriko Udalak hilabete osoko egitarau zabala antolatu du. Urtero Larraun eta Lekunberriko emakumeek atzerrira egiten duten bidaia aurten aurreratu egin zuten eta otsailaren 6an Lisboa joan ziren. 35 emakume izan ziren guztira eta hango hainbat txoko bisitatu zituzten. Belengo Jeronimoen Monastegia, Sintra hiria, Tajo ibaiaren ertza, Gurdien museoa, Chiado auzoa...

Vega Botellok bidaian parte hartu zuen eta zenbait argazki bidali dizkigu. Gainera, Mailope aldizkaria ere eramateaz gogoratu zen.

Martxoko egitarau osoa Agendan ikusgai (31. orr).



- 14 -

Izotz-pistara irteera egingo dute Ibarberriko DBHko ikasleek

Gizarte Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak DBH 1, 2, 3 eta 4 mailetako gazteei zuzendutako irteera antolatu dute Itaroako izotz-pistara. Martxoaren 19an, 15:30ean Lekunberriko frontoitik abiatuko dira eta 20:45 aldera iritsiko dira Lekunberri-ira. 60 lagunentzako autobusa antolatu dute eta beteko balitz gaztetxo bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu eta 30 lagunek izen emango balute 10 euro.

Izotz pistan ibiltzeko beharrezkoa den material guztia bertan izango dute eskuragarri, baina beharrezkoa da norbere esku-larruak eta askaria eramatea. Eman izena martxoaren 10a baino lehen Ibarberri ikastetxean, Eskualdeko Gizarte Zerbitzuan (948 600 694 / 605 466 805) edo Euskara Zerbitzuko helbide elektronikoaren bitartez: larbeleareuskaraz@iparmank.eus.

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII! TLF BERRIA:
948 51 30 32

panaderia okindegia

GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Aldezaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

Zuberoako maskarada, lehen eta orain

Otsailaren 18an atera ziren Bilbotik *Correscales* martxan parte hartu zuten lehen pertsonak eta handik lau egunetara iritsi zen Bartzelonara. Hilaren 19ko arratsaldean pasa zen gure eskualdeko zenbait herritatik. Ez zuen jarraipen handirik izan, baina hala ere zenbait herritar korrika egitera atera ziren. Movistar enpresako langileek antolatutako 800 kilometroko martxarekin ezegonkortasun laborala salatu nahi izan dute.



20 lagun baino gehiago aldizkariaren urteko batzarrean

Joan den hilean Mailope Aldizkariko urteko batzarra egin genuen Beteluko Indianoetxean. 20 herritar baino gehiagok parte hartu zuten. Aldizkariaren egoera ekonomikoa, bazkietzeen bilakaera, barne egitura eta bestelako gaiak izan ziren hizpide.



 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL**
LEKUNBERRI
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA CLINICA DENTAL | HORTZ KLINIKA

Hitzaldia:
Haurren aho-hortzetako osasunari buruzko gurasoentzako gida laburra.

Eguna: 2016ko martxoaren 4a
Hora: 17:30etan
Tokia: Lekunberriko Udaletxe
Batzar aretoa
Hizkuntza: Hitzaldia euskaraz, diapositibak gaztelaniaz
Sarrera irekia
Hizlaria:
Ane Vitoria - Odontopediatra



Aurpegi berriak Kirol Mankomunitatean

Araitz, Areso, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitatean zenbait aldaketa izan dira aurten. Larraitz Oses iruindarra urrian izendatu zuten kirol teknikari eta Joseba Eskamendi beteluarra kirol mankomunitateko lehendakari berria da.

Ikasturte hasiera gogorra izan dute aurten eskualdeko Kirol Mankomunitatean. Udan Ruben Goñik, kirol teknikari postua utzi zuen Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari izendatu eta gero. Hori dela eta kirol teknikari berria izendatzeko deialdi publikoa egin zuten eta urriaren amaieran Larraitz Oses hasi zen mankomunitatean lanean.

Hiru urtez ibili zen Ultzamako Udalean eta azkeneko urteotan udako denboraldian suhiltzaile lanetan aritu izan da eta neguan aldiz klaseak ematen eta entrenatzen.

Aurretik esperientzia bazuen arren, gogorra egin zaio hemengo martxa hartzea. Larraitz: “Oso mankomunitate korapilatsua da hemengoa, udal asko dira, eragile askok parte hartzen dute

eta instalazioak ere hainbat. Gainera, klub batzuekin eta besteekin harremanak eta lan egiteko moduak guztiz ezberdinak dira”.

Ez du arrazoi faltarik, hala ere dagoeneko bete-betean dihardu lanean eta gainera zenbait aldaketa berritzaile ditu esku artean. Mankomunitateak hainbat talderi emandako diru laguntza kanpainan egokitzen hasi da. Larraitz: “Orain arte ez zegoen irizpide argirik, ez zuten deialdirik egiten, arautu gabe zegoen eta entitate publiko bat izanik beharrezkoa da legea zorrotz betetzea”.

Azken urte hauetan futbola, pilota eta judo taldeak soilik jasotzen zuten diru laguntza. Hemendik aurrera diru laguntzen legean oinarrituko gara ekarpen ekonomikoak irizpide zehatz batzuen arabera egiteko.

Bide beretik, webgune bat sortzeko asmoa ere badu Larraitzek. Bertan, aurrekontuak, mankomunitatearen beraren aurkezpena, albisteak, argazkiak etab. eskegiko dituzte.

Gardentasun legea behar bezala betetze aldera eta herritarrengana ere errazago iristeko. Larraitz: "www.kirolmank.blogspot.com" bloga, egun zenbait informazio kaleratzeko erabiltzen dena, nahiko mugatua da, oso sinplea delako eta ezin dudalako behar bezala antolatu. Web orria martxan jartzeak lan handia eskatzen du, baina ea udarako edo

ikasturte hasierarako martxan jartzen dugun".

Datuen babeserako legea betearazteko ere lanean hasi da aholkularitza enpresa baten laguntzarekin. Datu asko baitira alde batetik bestera mugitzen dituztenak, diru laguntzak direla, fakturak direla...

Baina horrez gain, kirol jarduera, ikastaro eta ekimen guztiak behar bezala lotzeaz arduratzen da kirol teknikaria. Ikasturte honetan esaterako, igeriketa ikastaroak, igeriketa sinkronizatua, ki-

rol-gimnasia, atletismoa, pilota, futbola eta judoa eskaintzen dituzte Lekunberri. Horrez gain, helduentzat, spinning, zumba, entrenamendu funtzionalak, pilates, yoga, fibromialgiari aurre egiteko ikastaroa eta mantentze-gimnasia daude.

Betelun aldiz, herri kirola, pilota, futbola eta nesken eskubalo taldea aritzen dira. Arriben Pilates eta yoga klaseak ematen dituzte. Eta azkenik, Areson, haurrentzako psikomotrizitatea, multikirolak eta nagusienentzako entrenamendu funtzionalaren taldea osatzea lortu dute.

"Gurea da Nafarroako bost kirol mankomunitateen artean jarduera eta ekimen gehien antolatzen dituen"

Kirol entitate horrek eskatzen duen eguneroko jardunaz hein handi batean Larraitz bera arduratzen den arren, lehendakari bat ere badu mankomunitateak, Joseba Eskamendi.

Joseba, zu nolatan izendatu zintuzten lehendakari?

Joseba: Udal legealdiarekin batera aldatu ohi da eta udalez udal alfabetikoki txandaka ibiltzen gara. Azken lau urteotan Mikel Baraibar aresoarra izan da eta aurten Beteluko udal ordezkariaren batek erreleboa hartzeko ordua zen. Ni kirol arloko zinegotzia izanik niri egokitu zait. Ez da bokaziozko zerbait.

Eta zeintzuk dira zure egin beharrak?

Joseba: Entitate publiko bat da mankomunitatea eta diru laguntzak eskatzen ditugunean adibidez, lehendakariaren izenean egiten da. Larraitz da gauza guztiez arduratzen dena, baina gero gu-



- 17 -



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.



rekin bildu eta nik oniritzia eman eta sinatu egiten dut.

Gainontzekoaz zu arduratzen zara Larraitz?

Larraitz: Bai, jarduera guztiak martxan jarri eta zabaltzea, monitoreak kontratatu, baimenak, izen-emateak, Araitz-Beteluko Krosa eta Lekunberriko legoa bezalako ekimenak antolatzea... Horiek lan handia eskatzen dute, nahiz eta gero egunean bertan herritarren aldetik laguntza jasotzen dudan.

Baina Josebak izugarri kontrolatzen du kirol arloan egin beharreko lanen gainean. Eta hori alde handia da, noizbait ni falta banaiz gauzak nola egiten diren ezagutzen duen norbait gainera izatea ezinbestekoa delako.

Joseba: Urtean lau bat aldiz elkartzeko gara udal ordezkariekin kontuak onar-

tzeko, aurreko urteko kontuak ixteko, bozketa bereziren bat egin behar bada egiteko. Ekainean hurrengo ikasturteko plangintza prestatzeko bilera egin ohi dugu eta abenduan ikasturte hasierako balorazioa egiten da.

Eta aurten zer moduzko balorazioa egin duzue?

Larraitz: Ba nahiko ona. Urrian ni iritsi nintzenerako ikastaroak berez hasiak ziren eta Ruben jada ez zegoen hemen. Ia ia bakarrik hasi ziren martxan, herritarrek monitoreekin harremanetan jarri. Ni iritsi nintzenean oraindik hiru jarduerari irakaslea falta zitzairen. Nahiko kaotikoa izan zen hasiera eta hala ere dena aurrera ateratzea lortu dugu, beraz ezin gara kexatu.

Eta jarduera eta ekimen horiek guztiak martxan jartzeko mankomunitatearen

diru iturria zein izaten da?

Joseba: Udalen artean biztanle kopurua-
ren arabera banatzen da kostea.

Larraitz: Aurten Nafarroako Gobernutik berriz ere diru-laguntza bat jasoko dugu, bi edo hiru urtez ez baitugu ezer jaso. Eta alde horretatik arnas pixka bat hartuko dugu, baina hala ere udalen kuotak ez ditugu jaitsi behar, ordaintzeko zorrak ere badirelako.

Orain dela bi hilabete izan zen Araizko Krosa... Zer moduz joan zen?

Larraitz: Oso ongi, primeran, laguntza handia jaso nuen. Han laguntzen ibiltzen diren herritarren artean bakoitzak zeregin bat du finkatuta jada, nik dena gainera kontrolatu baino ez nuen egin behar izan. Konturatzeko dena prestatuta zegoen, beraiei esker.

Eta orain Lekunberriko legoa prestatzen ariko zara...

Larraitz: Bai eta uste dut hemen ezberdina dela, jendeak ez duela horrenbeste parte hartzen. Baina, ikusiko dugu ea animatzen diren.

Betelun klub bat ba al dago?

Larraitz: Betelun futbola, bertako futbol taldearekin eramaten da eta pilota, herri kirolak eta esku baloi taldea oraingoz behintzat mankomunitateko zuzeneko jarduerak dira. Baina helburua da denak klub batean batzen saiatzea eta ardura klubarena izatea mankomunitatearen laguntzarekin eta diru laguntzekin. Gure lana talde berriak sortu eta sustatzea da, baina behin taldea sendotzen denean komeni da klubak sortzea, eta horretarako jendeak ere prest egon behar du hor lan egiteko noski!

TOKI ~ ALAI
SAGARDOTEGIA

948 504 057
647 444 678
650 450 161

info@sidreriatoiki-alai.com



**EKAINERA ARTE ZABALIK, OSTIRAL GAUËTIK
IGANDE EGUERDIRA ETA JAI EGUNETAN!!**

www.sidreriatoiki-alai.com

Txooooo!

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik



948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ

Zein kirol gustatuko litzaizueke sustatzea bereziki?

Larraitz: Multikirola gehiago sustatu beharko genuke haurren artean. Adibidez Betelun ez dago hiru eta sei urte bitarteko jarduera eskaintzarik eta hemen multikirolak eta psikomotrizitatea eskaini zen baina ez da talderik atera.

Joseba: Bai, ongi legoke hurrek kirol ezberdinak egin ditzaten, bestela oso goiz bideratzen dira kirol batera edo bestera.

Larraitz: Eskubaloia izan da aurten jaso dugun eskaera bakarra eta 12-14 urte-

ko neskekin taldea osatzea lortu dugu. Gustura dabilta eta ea hurrengo urterako bigarren talde bat ere osatzea lortzen dugun. Rokodromo bat ere badugu



erabiltzen ez dena eta inbertsio txiki bat egitea lortuko bagenu hori ere martxan jartzeko... Bestetik, ikasturte amaiera honetan nire asmoa jaialdi txiki bat antolatzea da ikasitakoaren erakustaldiak egin ditzaten kirol ezberdinetan.

Oro har, ikastaroetan zer moduzko parte hartzea izaten da? Krisiak eraginik izan al du?

Larraitz: Egon dira zenbait urte jendeak murriztu egin dituela jarduerak baina nik azkeneko bi urte hauetan berriz ere gorakada sumatzen dut. Kirolean gertatzen da jarduera berri batzuk kendu eta beste batzuegatik ordezkatzeko direla. Lehen aerobik edo hipo-hop zena orain zumba da, lehen mantentze-gimnasia zena, orain metodo multifuntzionala... Baina, jendea gutxi gorabehera berdina izaten da. Nabarmenezkoa da gainera, Nafarroan dauden bost kirol mankomunitateetatik gurea ez da biztanle gehien dituen eta aldiz jarduera eta ekimen gehien ditugun gara, alde handiarekin gainera. ditugun gauza horiek euren haurrekin lortzea.



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.



Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

ETXEZ ETXEO EGUR SALMENTA

URTE OSOAN ZEHAR

EGURRA
EXPRES

☎ 635 90 91 95

✉ promanburillo@gmail.com

Erbiti, Basaburua

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu

“(Larraun da Araitz) Bi dozena” izeneko taldea Bardoetako bigarren faseetik kanpo

Esanahi handiko izena aukeratu dute aurtengoan eskualdeko bi bailaretako bertsolarien artean osatu duten taldearentzako, “(Larraun da Araitz) Bi dozena”. Izan ere, bi bailaren artean guztira 24 herri baitira.

Joan den hilean amaitu zen Bardoetako lehen fasea eta sei talde sailkatu ziren dagoeneko hasia den bigarren fasean aritzeko: Lesakako “Unibertsolariak”, Berako “Larrun antenak”, Lei-tzako “Atekaberts”, Etxarri-Aranazko “Einnekin”, Barañaingo “Hiru garabardo eta pintxo bat” eta Iruñeko “Obario Maldikoak” taldeek egin dute aurrera.

Allin, Joana Ziganda, Juan Mari Irastortza eta Luis Mari Larreta aritu ziren bertsoan Iruñeko “Mirristi Drimtim” taldeko kideekin batera. Kizkitza Mujika eta Ainhoa Iriarte berriz gaik jartzen ibili ziren. 50 lagun inguru bildu ziren eta saioaren ondotik afari-merienda baten bueltan elkartu ziren.

Bigarren fasea joan den otsailaren 19an hasi zen eta martxoaren 6an amaituko da. Guztira sei saio izango dira eta horietatik hiru talde sailkatuko dira Etxarri Aranatzeko martxoaren 19an jokatuko den Bardoak taldekako txapelketako finalera.

Informazio eguneratua: www.bertsozale.eus

Kopla kantari

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, ohitura den bezala, kalera irten ziren herritarrak koplak abestera. Lekunberrin koadrila ederra bildu zen trikitixa eta txistu soinuen laguntzarekin abestera. Ondoren Larraungo zenbait herritan barna ere ibili ziren. Araitz eta Betelun berriz, aurtengoan Gaintzan bildu ziren Araxesko ikasle eta gurasoak. Etxez etxe kantuan ibili ondoren Sonbelu elkartean askaldu zuten. Horra hor Juan Antonio Garaikoetxeak eta Ainhoa Lertxundik jasotako zenbait irudi.



Gaintzan trikitilarien laguntzarekin ibili ziren kantari. Arg: Ainhoa Lertxundi.


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
 ZURGINTZA OROKORRA
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
 Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
 Aralar kalea, 41
 Lekunberri

OGI BERRI
 OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA
 TABERNA
 ARALAR, 15
 948 60 47 24**

**TAXI
 SOROA
 609 168 217
 Bederatzi plaza**

Ibarberriko ikasleak ere Mailoperen alde

35 lagun baino gehiagok egin zuten lasterka joan den hilaren 22an egin zen Mailope lasterka txikian. Ibarberri ikastetxeko ikasle koadrila baten ekimena izan zen. Beretxu Lavin, Amaia Saralegi, Ione Alsua, Lorea Huarte, Iugatzi Zelaia eta Maddi Huarte ibili ziren besteak beste dena antolatzen. Kilometro bat eta 700 metroko ibilbidea prestatu zuten Lekunberrin barna. Beretxu: "Astean zehar, arratsaldeetan, txartelak saltzen ibili gara herrian eta irakasle batzuk ere portatu dira eta zenbait txartel erosi dizkigute". Bildutako diruarekin Mailope Aldizkariaren aldeko ekarpena egin dute. Guztira 200 euro lortu dituzte. Eskerrik asko!!





Mozorro festa koloretsua

Dagoeneko eskualdeko inauteri gehienak ospatu ditugu: Uitz, Lekunberri, Aldatz, Alli, Baraibar, Betelu... Aurten gainera aspaldian galduak ziren inauteriak berreskuratu zituzten Allin eta koadrila ederra bildu zen. Herriz herri zenbait irudi bildu ditugu.





Baraibarren batzuk ezkondu ere egin ziren. Arg: Mikel Huarte



Allin inauteriak berreskuratu dituzte aurten. Arg: Sugoï Etxarri



Betelun karroza eta guzti atera ziren batziuk.



Puska-biltzan ibili ziren Uitzin. Arg: Laida Zabaleta



Nor da nor?



Uitzin gauera arte luzatu zuten festa. Arg: Laida Zabaleta

Egin zaitetz bazkide!!

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 576
info@bidegoxo.com

Martitxonea
sagardotegia

Inaxio Begiristain

Aldatz
Nafarroa

948604607

Legoan taldeka parte hartzeko aukera izanen da



Martxoaren 20an izanen da Arruizko Txikitoren omenezko Legoaren XXVIII. edizioa.

Lekunberriko frontoiko ateak irekiko dira goizeko 10:00etan gaztetxoen probetan izen emateko eta 10:30ean hasiko dira.

Proba nagusia eguerdiko 12:00etan izanen da. Guztira 6 kilometro eta 40 metro dira lasterkariak Lekunberrietik Azpirozko Ziatarren etxeraino egin beharreko joan etorria. Urtero bezala, ohiko sariez gain, lehenengo 150 korrikalariarentzat oparia izanen da eta eguerdiko 13:00etan hamaiketako es-kainiko zaie parte hartzaile guztiei Gau Txori Elkartean.

Adi! Aurten berritasun batekin baitator lasterketa. Afari bat zozketatuko da taldeka parte hartzen dutenen artean. Horretarako hiru edo lau laguneko taldeak osatu beharko dira, baina denek mankomunitatea osatzen duten udalerrietakoak beharko dute izan.

Horretarako, izen bat aukeratu eta egunean bertan izen emateen mahaian apuntatu.

Animatu eta parte hartu!

Dagoeneko www.kirolprobak.com atarian izen emateko aukera dago.

Anartz Olano eta Karlos Mariñelarenak irabazi dute Neguko Trinkete Txapelketa

Joan den ilbeltzaren 23an Neguko Trinkete Txapelketaren finalak jokatu ziren Lekunberriin. Altzo eta Orejak Isusko eta Igorren aurka jokaturako partiduan lekunberriarrek irabazi zuten eta 3. postua eskuratu. Ondoren finala jokatu eta irabazi zuten Anartz eta Mariñelarenak Miel eta Kevinen aurka. Zorionak!

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

AMAIRU BAR
GTXEKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK
948504352

Kantina Rock 948
60
48
21
KANTINA
bokatak, platerak eta...musika.....

TAXILON Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

Peru, aniztasunez beteriko bidaiia

Uztailean, Aingeru Epaltza Peruko Vallunaraju mendiko tontorrera igo zen, 5.678metrotara. Bidaiia ez zen horretara mugatu ordea, Peru gertutik ezagutzeko aukera izan zuen bere etxekoekin batera, Elena Roncal emaztearekin, Miren Epaltza alabarekin eta Juan Pablo Sarmiento suhiarekin. Euren esperientzia herritarrekin konpartitu zuten joan den hilaren 19an Lekunberrin eskainitako aurkezpenean.



Badira zenbait urte Aingeru Epaltza kazetari iruindarrak eta bere familiak Lekunberrin etxea erosi zutela, orduetik gurean izaten dira asteburu eta oporraldietan. Gainera lau hilabete baino ez dira Miren eta Juan Pablo Lekunberrira bizitzera etorri zirela.

Otsailaren 19an Lekunberriko udal aretoan 2015eko udan laurek Perua egindako bidaiari buruzko aurkezpena eskaini zuten. Bidaiia berezia izan zen. Berezia delako ere Peruk familiarentzat duen esanahia. Bertan ezagutu zuten elkar Mirenek eta Juan Pablok. Herrialdearen iparraldean dagoen Chiclayo herrian jaioa da Juan Pablo. Bera izan zen bidaiia goitik behera antolatzeaz arduratu zena.

Uztailean, San Ferminen bezperan irten ziren Iruñetik Madril aldera, handik Miami eta Miamiatik Limara azkenean. Peruko hiriburuan bertan egin zuten lehen geldialdia, 24 orduz izan ziren bertan eta zenbait txoko ezagutu zituzten. Aingeru: "Iritsi eta berehala kaleko bizitzak erakarri zuen gure arreta, jen-

dea kalean bizi da, horregatik janaria eskaintzen dituzten postu asko izaten dira".

Gauetz, hamarrak aldera, autobusa hartu eta Huarazera joan ziren, mendialde- ra. Aingeruren iritzi, Perun bidaiatzeko modurik erosoena autobusez eta gauetz egitea da. Autobus erosoak dira, bidaiia luzeak egiten dituztenak, 7-12 orduko bidaiak. Gainera segurtasuna zaintzen dute, ez dira 90 kilometro orduko baino abiadura handiagoan ibiltzen.

Zortzi ordu behar izan zituzten Limatik Huarazera iristeko. Bidean jada tenperatura aldaketa sumatu zuten. Aingeru: "20 gradurekin irten ginen Limatik eta Huarazen izotza egiten zuen goizean goiz". Izan ere, Huaraz 3.100 metrotara dago eta nahiz eta egunez tenperatura dezente igotzen den, gauetz jaitsi egiten da.

Huaraz hiri ezaguna da Peruko Mendikate Zuriko mendi edo parajeetara joaten diren mendizaleentzat, bertatik hasten baitira "trekking" eta espedizio gehienak. Aingeruk emandako azal-

penen arabera, Peruko Mendikate Zurian daude eremu tropikalean dauden munduko mendirik altuenak. Aingeru: "6.000 metro baino gehiagoko 24 gailur ditu eta 5.000 metro baino gehiagoko 80 tontor baino gehiago. Niretzat mendizaleen paradisia da hura".

Bertan kitxua (bertako berezko hizkuntza) entzuten hasi ziren eta jada zuri bakarrak beraiek zirela sentitzen hasi ziren, eurak bezala kanpotik etortitako beste hainbat mendizale kenduta, "Peruko berezko indiarrekin topatu ginen. Limako zenbait auzotan ez zen halako ezberdintasunik ikusten Europakoekin alderatuta. Baina Huarazera iritsi ginenean jada beste herrialde batean ginela sentitzen hasi ginen".

Beste 24 ordu eman zituzten Huaraz ezagutzen eta gero banatu egin ziren. Aingeru han gelditu zen eta beste hirurak mendialdeko beste herri batera joan ziren bestelako bizipen batzuen bila.

Vallunaraju mendia igotzea zen Aingeruk bidaiia horretan bete nahi zuen helburuetako bat. 5.000ko bat egiteke zuen oraindik. Hiru egun behar izan zituen altuera horietara behar bezala egokitzeke (Eta esperientziaren ondotik, laugarren egun bat hartu izan balu hobeto).

Vallunaraju izenak bi belarrien mendia esan nahi du kitxua hizkuntzan. Hala egin zituen metro gehienak elur eta izotz gainean. Bi laguntzailerekin igo zen Aingeru. Altuerara egokitzen joateko igo eta jaisten ibiltzea gomendatzen dute adituek eta hori egin zuten. Lehenengo egunean Willcacocha urmaelera igo ziren, 3.745 metrotara. Aingeru: "Paisaia ederra ikus zitekeen bertatik, Mendikate Beltza atzean Mendikate Zuriko gailurrak dituela. Izenek adierazten duten moduan, bat elurtuta



egon ohi da eta bestea ez. Mendikate Beltza osatzen duten mendiak gehienez ere 4.000 metrotara daude eta gezurra badirudi ere, Perun 4.000 metrotara ez da elurrik izaten normalean”.

Ondoren berriz ere Huarazera jaitsi ziren gaua pasatzera eta hurrengo goizean Morrena kanpamentura joan ziren, 4.900 metrotara. Hara iristeko taxi bat hartu zuten eta bi orduko bidea egin ondoren Yaca izeneko mal-karrean jaitsi ziren. Mendikate zurian oso aterpe gutxi daude eta inguru hartan ez zegoen bakar bat ere. Taxitik jaitsi zirenean, gidariak motxila handi bat hartu zuen bizkar gainean, bigarren laguntzaileak Aingeruren motxila handia aurreko aldean jarri zuen eta bi kanpin-denda bizkarrean. Aingeru: “Ni bien atzetik abiatu nintzen motxila txiki batekin, gidariak aldiro atzera begiratzen zuen atzetik nijoala ziurtatzeko eta Roberto pisu guzti horrekin pausu azkarrarekin eta tarteka geldituz gure zain”.

Bi orduren buruan iritsi ziren kanpamentura. Kanpin-dendak jarri, afaldu eta goi-minari eta hotzari aurre egiteko kokarekin prestatutako hiru litro infusio hartu ondoren, lotara. Goizaldeko ordubietan abiatu ziren gailurreruntz. Koka infusioaren ondorioz ez zuen lorik egitea lortu Aingeruk. “Gauetz egin genuen ia igoera osoa. Lehenengo ordu erdia haitzaren gainetik eta handik

aurrera glaziarraren gainetik. Bi aldiz koka infusio beroa hartzeko baino ez ziren gelditu, baina zero azpiko 12 gradurekin ezin genuen atseden hartzeko gelditu. Zenbait arrailekin kontuz ibili behar bada ere, esperientzia pixka bat izanez gero, ez da arrisku handiko mendia”.

Goizeko seietan iritsi ziren gailurrera, eta orduan hasi zen eguna argitzen. “Ikaragarria zen, ordu laurden egon ginen tontorrean. Inoiz ez dut halako isiltasunik entzun, halako ikuspegiekin. Bizitzan izan dudan sentsazio ederrenetako bat izan zen”. Jaitsiera jada egun argiz egin zuten eta 11:30etan taxia hartu zuten.

Kultura eta ohiturak gertutik ezagutz

Bien bitartean, hiru egun horietan, Juan Pablo, Miren eta Elena Humacchuko izeneko herritarra bateko familia baten etxean egon ziren. Elena: “Etxean hartu gintuzten. Kitxuaz hitz egiten zuten arren, familiako ama izan ezik gainontzekoak ederki moldatzen ziren gaztelaniaz eta niretzako garrantzitsua izan zen elkar ongi ulertu ahal izatea”.

Egun haietan bertako eskola bisitatu zuten, inguruko txokoak, euren ohiturak, egunerokoa eta kezkak eza-

gutu zituzten. Elena: “Azkeneko egunean pachamanca izeneko plater bat prestatu ziguten. Harriekin momentuan bertan egindako labe batean prestatu zuten. Hostoz estalitako txerri eta oilasko haragia sartu zuten eta gainetik patatak, artoak eta babak jarri eta dena estali zuten. Handik ordu batzuetara dastatu genuen eta oso goxoa zegoen”.

Peru ezagutzera zen bidaiaren helburuetako bat, baina baita Juan Pabloren familia ezagutzera ere. Horregatik, ondoren denak elkartu eta handik iparraldera joan ziren, Chiclayora.

Elena: “Mendialdetik basamortura pasa ginen. Chiclayo itsasotik 20 kilometrotara dago. Iparraldea horren eza-guna eta turistikoa ez den arren, oso aberatsa da ondare historiko eta arkeologikoari dagokienean batez ere. Peruko gainontzeko lekuetan bezala oso ongi jaten da eta gainera merke”.

Bertan Pómac-eko baso lehorra ezagutu zuten besteak beste. Bertan garai batean adobez egindako piramideak bisitatu zituzten. “Iparraldean halako piramide pila aurki daitezke”.

Hiru asteko bidaiak izan zen eta leku asko ezagutu zituzten, Titikaka lakua, Aimara etniako bizilagunek totora landareekin eraikitako ur gaineko irlak, Cuzcoko herri inkak eta Machu Picchu, nola ez.



“Perura bidaiatzen dutenen bizipenak ahalik eta errealenak izan daitezen saiatzen naiz”

Duela urte eta erdi etorri zen Juan Pablo Sarmiento Nafarroara bizitzera. Turismoaren alorrean lan egiten zuen Perun eta hemen ere hala jarraitzen du. Khuska Travel bidaia agentzian lan egiten du, Peruko bidaietan berezitateko enpresan eta Lekunberrin bertan du begoa.

Bisitatzeko aukera eta leku oso ezberdinak ditu Peruk ezta?

Bai, Peru aniztasun handiko herrialde bat da. Alde batetik kostaldea daukagu, bestetik mendialdean mendi altuak aurki ditzakegu eta oihana ere badaukagu. Baina ez da naturatik haratago, anitza da ere gainontzeko alorretan. Hiru eskualde horietako bakoitzak bere berezitasunak ditu, ezberdina da jendearen izaera, ohiturak, dantzak, folklorea, musika, gastronomia... Eta hain juxtu horregatik da horren erakargarria.

Ipparaldea ez da horren bisitatu...

Eta aldiz, Lambayeque, Chiclayoren ipparaldean, Peruko eremurik arke-

ologikoena eta historikoena da. Jendeak, Perura joaten denean, hegoaldera jotzen du, baina nik ipparaldea ere bisitatzeko gomendatzen diet ezezagunagoa den arren aberastasun ikaragarria duelako.

Zenbateko aurrekontua behar da Perura bidaia bat egiteko?

Perura profil mota guztietarako da gomendagarria eta aurrekontu ezberdinekin egin daiteke. Hamabost eguneko bidaia eder bat egin dezakezu (hegazkina barne) 2.000-2.500 eurekin. Luxuzko bidaiak egin daitezke 5 izarretako hoteletara joanez eta zerbitzu pribatuekin. Eta beste muturrera joanda ere jende asko dago motxila bizkar gainean hartuta oso aurrekontu txikiarekin joaten dena.

Bertako jendearekin elkarbizitzeko aukera ere badagoela ikusi dugu...

Bai, herrialdea horren anitza izanik mota guztietako esperientziak bizitzeko aukera eskaintzen dizu. Nahi izanez

gero bertako jendearen eskutik herrialdea ezagutzeko aukera dago, benetako esperientziak bizitzeko. Batzuek uste dute komunitate artifizialak direla, turistei harrera egiteko jantzen direla bertako arropa tradizionalekin eta ez da hala. Ni Peruko kultura sustatzen nabil hemen eta esperientziak ahalik eta errealenak izan daitezen saiatzen naiz. Adibidez, garrantzitsua da gidariak zoazen komunitate horretakoak bertakoak izatea. Europako bidaia agentziek askotan taldeak hemengo gidariekin bidaltzen dituzte eta ez dago gaizki. Baina onena da herrialde ezberdin bat bisitatu behar baduzu bertakoa izatea. Gainera kontziente izan behar gara Hego Ameriketako herrialde horietan defizit ekonomiko bat jasaten ari direla eta zenbait eremutan pobrezian bizi direla. Beraientzat tresna ekonomiko garrantzitsu bat izan daiteke euren kultura eta ohiturak guri transmititu ahal izatea. Guk bidaiatzen dugunean hausnartu egin behar dugu zer nolako bidaia egin nahi dugun.



“Sukaldea da taberna honetako bihotza”

Amaia Aizkorbe tolosarra da jaiotzez, baina 22 urte daramatza dagoeneko Betelun bizitzen. Herriko ostatuko nagusi berria da, Urte Zahar gauean Jesus Etxeberriari eta Maria Makayari erreleboa hartuz geroztik.

Amaia, Beteluko ostatua hartu aurretik ostalaritzan lanean ibilitakoa zara...

Bai. Urte asko eman ditut etxean seme-alabak txikiak zirenean, baina izan ditudan lan guztiak publikoari begirakoak izan dira. Lekunberriko Kanping-ean ibili nintzen lanean eta azkeneko bi urte hauetan Tolosako Bidegoxo Kiroldegian aritu naiz. Gero aukera hau sortu zen eta etxe ondoan izanik animatu egin nintzen. Egia esan ez zitzaidan gehiegi kostatu pausua ematea, uste dut momentu egokia zela. Gainera, nire hiru seme-alaben eta etxekoen oniritzia izan nuen hasieratik eta hemen nago.

Urtarrilaren lehenengo egunean ireki zenuten...

Bai. Urte Zahar gauean hasi ginen eta oso pozik. Aurretik zeuden langile berdinek jarraitzen dute, batek izan ezik. Guztira sei pertsona gabiltza lanean eta asteburuetan nire alaba Miriamek ere lagundu egiten dit.

Asko zarete herri txiki bateko ostatu bat izateko ezta?

Bai, baina mugimendu handia izaten dugu. Astez 20-25 menu ematen ditugu egunero eta goizetan beti ibiltzen da jendea. Arratsaldeak lasaiagoak izaten dira. Baina asteburuetan lan asko izaten dugu, gelditu gabe aritzen gara.

Eta astegunetan ze bezero mota hurbiltzen da hona bazkaltzera?

Langileak eta paseko jendea. Komertzial asko gelditzen dira hemen bazkaltzera. Gaur adibidez, Donostiako mendizale koadrila bat etorri da, hilean behin etortzen dira horiek. Bada Tolosako jendea propio hona bazkaltzera etortzen dena hemengo janaria asko gustatzen zaiolako. Eta egia esan ditugun bi sukaldariak primerakoak dira, sukaldea da taberna honetako bihotza. Ni ez naiz sukalde kontuetan sartzen,



sukaldariak erosteko eskatzen didatena bete baino ez dut egiten. Gainera, ostatuak bezero fidelak zituen aurretik eta dudan lan taldea ezin hobea da. Horregatik ezerezetik hastea baino askoz errazagoa izan da.

Eta zer eskaintzen duzue?

Astegunetan eguneko menua eta asteburuetan bi menu berezi ditugu eta baita plater konbinatuak, ogitartekoak, hamburgesak eta errazioak ere. Asteburuetan bete egiten zaigu. Urtarrilean jende asko ibili da. Otsaila jende gutxien ibiltzen den urteko hilabeteetako bat dela diote eta astez egunero 25 eta 28 bazkari ematen ditugu. Herriko inauterietan, larunbatean goizeko zortzietan hasi eta goizaldeko ordubietan joan nintzen etxera, baina giro ederra zegoen eta gustora. Aste Santua ere dagoeneko bertan dugu eta jatetxearen gaineko ostatuko lau logelak jada bete dauzkagu. Ezin gara kexatu!

Zenbat lagunentzako lekua duzue ostatuan?

Bi logeletan bina ohe daude, hirugarren bat ohe handi batekin eta laugarrenak hiru ohe dauka. Logela bakoitzak bere komuna eta telebista ditu. Oso ostatu xumea da, baina oso ongi dago. Astez ere logelaren bat edo beste betetzen da normalean, langileak gehienbat. Urtarrilean basoko lanetan zebiltzan Bizkaiko langile batzuk izan genituen.



Eta tabernari dagokionean, aldaketarik egin al duzue?

Ez, ez, menuak ere ez ditugu aldatu, nik uste gauza batek ongi funtzionatu gero, ez dela komeni aldatzea. Bezeroak pozik badaude eta langileak ere pozik egonez gero...

Inguruko jendeak zer dio? Zer moduzko harrera egin zizuten ostatua hartu zenuenean?

Ona. Hemengo jendea oso jatorra da eta urte asko daramatzadanez hemen bizitzen, denek ezagutzen naute.

Ostatu hau Beteluko Udalarena da berez...

Bai Udalarena da berez eta alokatu egin du. Nire aurreko arduradunak aurre-jubilatzera zihoaztenaren zurrumurrua atera zenean eta galdetzeraz etorri nintzenean uste nuen jende gehiago egongo zela interesaturik, baina ez zen hala izan. Eta Jesusek eurek eramaten zuten martxaren nondik norakoak azaldu zizkidanean guztiz konbentziturik gelditu nintzen.

Eta publizitate asko egiten duzue ostatua ezagutzera emateko?

Ez, Mailope aldizkarian eta Booking atarian baino ez dugu jartzen.

Ezbeharren bat edo beste ere gertatu zaizu tarte motz honetan...

Bai. Ostatua hartu eta hilabetera, urtarilaren 31n, lapurrak sartu ziren goizaldeko hiruretan eta ordenagailua eta kuxan genuen dirua eraman zuten. Tabako makina indarrez irekitzen ere saiatu ziren, baina ez zuten lortu. Ondoren, aste horretan bertan hanka erre nuen infusio baten ur beroa gainera erori eta gero.

A ze zorte txarra!! Eta parrandetako azken bezeroekin zer moduz moldatzen zara?

Ongi, gainera ni normalean ez naiz goizaldera arte gelditzen. Baina, adibidez, Urte Berri egunean, ni eta nire ahizpa goizean tabernara sartu ginenean betarik zegoen oraindik eta herriko gazteek esaten zidaten: "Oraintxe goaz e ama, oraintxe goaz!" [Kar, kar, kar]. Umorea rekin hartu eta gosaltzera joan ginen.

Asteko zein egunetan hartzen duzue atsedena?

Astelehen arratsaldeetan bakarrik ixten dugu. Hala egiten zuten gure aurrekoak eta jendea dagoeneko ohituta dago. Udan nik uste ez dugula egun bakar batean ere itxiko, jende asko ibiltzen delako, baina oraindik ez dakigu.

Jantokian zenbatetzako tokia duzue?

Larunbat honetan 67 bazkari eman ge-

nituen eta afaltzeko ere 50 lagun elkar-tu ziren. Gainera, atzeko aldean estalpe bat ere badugu eta, batez ere, udan jende askori hor afaltzea gustatzen zaio.

Jantokian erakusketa bat ere jarriko duzue aurki...

Bai. Aritz eta Beteluko eskulan taillerreko kideei euren lanak hemen jartzeko proposamena egin genien eta ongi iruditu zitzairen. Beraz, denboraldi batez lan horiek hemen izango dira ikusgai eta salgai.

FITXA:

Beteluko Ostatua

-70 lagunentzako jantokia

- Bederatzi pertsonentzako ostatua

Erreserbak: 948 513 026 / 61



Lagundu
Mailope!

Mailopeko bazkidea
izan nahi duzu?
mailope@labrit.net



GARAIZ Zure behar eta ordutegira moldatuko gara

Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika Inglesa
lengua kimika

948 504 450
648253522

marrazketa teknikoa

euskera historia

unibertsitate mailako ikasgaiak

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA
· HARATEGIA ·

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatara
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00

Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

INFORMATIKA ARALAR
LEXUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KOMPOTZEN

634 551 743
infoaralar@gmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri



Zoriondu itzazu zune lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean

Irune Saralegui

Martxoak 6, 8 urte.
Zorionak! Gure maite
Irune!
Prestatuko ditteu aza ta
babarrune!
Astinduaz garune!
Igaroko deu egun bigune!
Dantzan gozatuaz hainbat
une!
Jarrai dezala izaten
Sonbelu elkarreak gure
gune!!!
Besarkada haundi bat
aita, ama, Ekiñe eta Le-
kunberriko lagunek!



Yanua (martxoak 22, 8 urte) eta Uxue (martxoak 10, 6 urte) Oso ondo pasa ezazue zuen urtebetetze egunean. Muxu handi bat zuen familiaren partez.



Jokin

Martxoak 3, 2 urte.
Zorionak Jokin! Ya 2 urte
egingo dittuzu martxoaren
3an. Muxu pottolo bat
etxekoen partez.



Lander

Martxoaren 30ean, 7 urte.
"Zorionak Lander! Muxu haundi haundi
bat aitatxo, amatxo, Naroa ta Ibaien
partez."

Aner Otermin Iriarte,

Martxoak 7, urte 1.
Zorionak pittin!!! Muxu pottolo bat aita,
ama eta Arribeko familiaren partez.



Martxoak 28, 8 urte.
Zorionak **Igortxo!!**, Jarraitu beti bezain
alaia izaten. Ongi pasa eta muxu handi
bat aita, ama eta Noraren partez.



Uxue Jauregi (Arribe)

Uxue Jauregi (Arribe)
Martxoaren 6an, 13 urte.
Zorionak eta 13 muxu handi etxekoen
partez. Ondo pasa maittea!!!!



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

martxoa

4 | 17:30tan Z.X / SAXO / TXISTU emanaldia - ESKOLAKO ARETOAN

4 | Haurren aho-hortzetako osasunari buruzko hitzaldia Ane Vitoriaren eskutik. 17:30etan Lekunberriko udal arteoan.

12 | Abesbatzaren kontzertua (arratsaldean) - KIROLDEGIAN

19 | Lekunberriko Izotz Pistara (Larraun-Lekunberriko DBH 1-4 gazteekin)

19 | Tresna erronda 6 urtekoekin 10:00etatik Aurrera - ESKOLAKO ARETOAN

maiatza

6 | Talde Instrumentalen kontzertua (gauetz) - KANTINAN KONTZERTUA

agenda

merkatu txikia

SALGAI

- VPO pisua salgai Atallun. Bizitzera sartzeko prest. 90 m2ko bizitza, garajea eta trasteroa. 115.000€. 646179746 (Miren).

LAN BILA

- Lekunberriko emakume bat prest edozein lanetan aritzeko: etxe lanak, pertsonen zainketa, etxebizitzaren garbiketa etab. Emilia Dimitrova: 948 60 48 93 / 679 053 368.

LAN ESKAINTZA

- Ostalaritzan esperientziadun langileak behar dituzte Aralarko San Miguel Jatetxean. 948 373 032 / 680 444 457.

ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era. Publizitate eskariak bi hilabetez egongo dira jarrita, ondoren kontrako abisurik jasotzen ez badugu kendu egingo ditugu.

Emakumearen Eguna 2016



Emakumearen eguna 2016

MARTXOAK 5

Emakumeentzako afaria LekuOnberri Tabernan

MARTXOAK 8

12:00 Emakumearen Eguneko kontzentrazioa udaletxean.
20:00 Pintxo eta ardo dastaketa Kattagorri Elkartearen (19:00etan prestaketa eta 20:00etan aurkezpena).

MARTXOAK 13

Aurora Beltranen kontzertua Irurtzungo kultur etxean. Prezio berezia bertako emakume taldearentzat. Eman izena Mitxusenean txartela gordetzeko: 948 60 45 82.

MARTXOAK 15

20:00 Zinea udal aretoan: "La fuente de las mujeres".

MARTXOAK 20

Kultur bidaia Zugarramurdiko Sorginen Museora. Izen ematea Mitxusenean: 948 60 45 82

MARTXOAK 30

10:00 Emakumeak eta ofizioak. Bisita Etxarri-Larraunera. Irteera Lekunberriko herriko plazan.

SAStraka
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9
31870 Lekunberri

948.60.48.06 Iñigo
www.sastraka4x4.com

M. Angeles Urrizalki
iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala

948513056
699179437

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com



MATRIKULATZEKO EPEAK

- *Beteluko Haur Eskola, elebakarra (euskaraz)* •
- *0-3 urte bitarteko haurrak hartzen ditu* •
- *Bi modulu daude, 4 ordu eta 7 ordukoa* •

Ordutegia: 8:00 etatik 16:30era
 948 513 001 - sorgintxohaureskola@hotmail.com
 Antigua kalea 5,
 31890 Betelu

Informazio gehiagorako gure webgunea:

*** sorgintxohaureskola.wordpress.com ***



2016-2017 IKASTURTERAKO MARIKULA EGUTEGIA

MARTXOA

	1	2	3	4
7	8	9	10	11
14	15	16		

IKASLE BERRIEK
AURRE MARIKULA
EGITEKO EPEA

MAIATZA

				6
9	10	11	12	13
16	17	18	19	20
23	24	25	26	27
30				

ONARTUEN BEHIN BEHINEKO
ZERREDA

ERREKLAMAZIOAK EGITEKO
EPEA

ONARTUEN BEHIN BETIKO
ZERREDA

MARIKULA EGITEKO EPEA

Paperak hartu eta uzteko ordutegia eta tokia:
 Sorgintxo Haur Eskolan, astelehenetik ostiralera
 9:00 - 10:00 eta 15:00 - 16:30 bitartean